



## **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILBURUAREN 2021EKO URTARRILAREN 29KO AGINDUA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA KLIMA- ALDAKETARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA ABIATZEN DUENA**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egokitzen jotzen du Trantsizio Energetiko eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektu bat egitea.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua jasotzen duenez, arauko xedapen baten proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat gauzatu behar da, Administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, etorkizuneko arauak ukitu ditzakeen pertsona eta erakunde ordezkagarrien iritzia jasotzeko xedez.

Zehazki, kontsulta honako alderdi hauei buruzkoa izan behar da:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Haren onarpenaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Aukeran egon daitezkeen irtenbideak, bai arautzaileak eta bai ez-arautzaileak.

Hala, urriaren 1eko 39/2015 Legea betez, Trantsizio Energetiko eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektua egin aurreko kontsultaren tramitea abiatzen da, etorkizuneko arauak ukituko dituen herritarrek eta erakundeek parte hartzeko aukera izan dezaten, planteatzen den arauari ekarpenak egiteko aukera izatea batera.

Horrenbestez, kontsulta,

- Irekitzen da etorkizuneko arauak ukitu ditzakeela usten duten instituzio publiko, erakunde, entitate edo elkarte eta pertsona fisiko guztientzat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web atarian argitaratuko da.
- Hamabost asteguneko epe bat ezartzen da etorkizuneko araua ukitu ditzakeela uste duten instituzio publiko, erakunde, entitate edo elkarte eta pertsona fisikoek formulatu ditzaten egokitzen jotzen dituzten ekarpenak eta oharrak.

Horrenbestez, kontsulta publikoko tramite hau da une hauetan egiten dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Gainera, arauko aurreproiektua egin aurretik gauzatzen da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasierako fasearen baitan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuak emandako eskumenak erabiliz (Sail hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila da gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuarekin bat etorriz).



**EBATZI DUT**

**Lehena.** - Trantsizio Energetiko eta Klima-aldaketaren Lege-aurreproiektuaren kontsulta publikoaren tramitea egitea, Lege-aurreproiektu hori landu aurretik.

**Bigarrena.**- Hala nahi duten instituzio publiko, erakunde, entitate edo elkarte eta pertsona fisikoek euren ekarpen eta oharrak helarazi ditzakete Agindu honen eranskinean jasotako alderdien inguruan, hamabost asteguneko epean, Agindua Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren web atarian argitaratzen den egunetik kontatuta.

**M ARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGI**  
**EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUM EN**  
**SAILBURUA**



## ERANSKINA

### 1. Trantsizio Energetikoa / Klima-aldaketa binomioa

Gaur egun, kontsumo energetikoa da berotegi-efektuko gasen emisio gehien eragilea, eta emisio horiek dira, hain zuzen ere, planetako klima-aldaketaren kausa nagusia. Horregatik, irtenbideen parte handi bat arazoari aurre egiteko xedez energiaren alorrean garatu behar ditugun jardueren eskutik dator. Horrek esan nahi du kontsumo energetikoarekin zerikusia duten jarduera guztiek funtsezko rola jokatu behar dutela ekonomiaren deskarbonizazioan aurrera egiten jarraitzeko estrategian. Trantsizio hori jasangarritasunari, garapen ekonomikoari eta gizarte-aurrerabideari lotuta gauzatzea da erronka nagusia.

Kontsumo energetikoaren igoera neurrigabeak eta iraungitze-data duten energia konbentzionalak kontsumitzen dituzten ekoizpen-prozesuen ohiko erabilerak ez diete beharrezkoa den erantzunik eman nazioartean adostutako ingurumen-betekizunei. Helmuga horietara iristeko, trantsizio egoki bat ezarri behar da, hau da, energia konbentzional ekologikoagoak bistatik galdu gabe bere garapena energia berriztagarrien erabilera nagusi eta ia eskusiboan oinarritzen duen trantsizio energetiko bat.

Prozesu hori zentzuzko denbora-horizonte batean burutu dadin, aurrera egin beharko da ekonomiaren deskarbonizaziora iristea ahalbidetzen duten teknologietan, energia berriztagarriak aprobetxatuz, kontsumo energetikoa elektrifikatuz eta kontsumitzaileen parte-hartze aktiboa bideratuz.

### 2.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Parisko Akordioak epe luzera ezartzen duen helburua da munduko tenperatura 2°C-tik baino askoz ere beherago mantentzea, garai industrialaren mailak erreferentziatzat hartuta, eta tenperaturaren igoera hori 1,5°C-ra –garai industrialaren aurreko mailekin alderatuta– mugatzeko ahaleginekin jarraitzea. Akordioak azpimarratzen du garrantzitsua dela klima-aldaketaren ondorio kaltegarrietara egokitzea eta finantza-fluxuak maila bateragarri batean jartzea klimarekin erresilientea den eta berotegi-efektuko gasen emisio apala duen ibilbide batekin.

Beste alde batetik, Nazio Batuen Erakundearen Klima-aldaketaren Adituen Gobernu arteko Taldeak txosten berezi bat egin du “1,5°C-ko berokuntza globalak –garai industrialaren aurreko mailak erreferentziatzat hartuta– planetan izango lukeen eraginari buruz eta munduko berotegi-efektuko gasen emisioek horretarako egin beharko luketen ibilbideei buruz”, eta hor berresten du klima-aldaketaren inpaktua azkar areagotzen ari dela eta esaten du 2°C-ko berokuntzarekin mundua oso larriki ukituta egongo litzatekeela.

Diferentzia handia dagoenez tenperatura 2°C-era igotzearen ondorioen eta 1,5°C-ra igotzearen ondorioen artean, txostenak kontsideratzen du ezen, tenperaturaren igoera 1,5°C-ra mugatzea



ahalbidetzen duen ibilbide batean kokatzeko, munduko CO2 emisioak % 45 murriztu behar direla 2030erako, 2010. urtea erreferentziatzat hartuta, zero izan behar dutela 2050aren inguruan, eta mendean zertxobait gehiago aurreratu ondoren neutraltasuna lortu behar dela, berotegi-efektuko gainerako gasen dagokienez.

Bere bosgarren ebaluazio-txostenean (AR5), IPCCk azpimarratzen du maila globalean honako inpaktu hauek espero direla: elikadura-segurtasuna ahulduko da; biodibertsitatea eta azaleko zein lurpeko ur-baliabideak murriztuko dira; hazkunde ekonomikoa geldituko da eta pobrezia-eremu berriak sortuko dira; pertsonen desplazamendua eta gatazka bortitzak areagotuko dira; pertsona, ondasun, ekonomia eta ekosistemek pairatzen dituzten arriskuak handituko dira, uholdeak gertatuko dira kostaldean eta barnealdean, eta baita lur-irritatzeak, airearen kutsadura, lehortekak, itsas mailaren igoera eta kostaldeko ekaitzak ere.

Eskualdeek eta toki-erakundeek klima-aldaketa arintzeko neurrien % 70 baino gehiago hartzen dituzte, eta berari egokitzeko neurrien % 90eraino; gainera, EBko legedi osoaren % 70 aplikatzen dute, eta, hortaz, gastu publikoaren herena eta inbertsio publikoaren bi heren kudeatzen dituzte. Horrenbestez, klima-neutraltasuna 2050erako lortzeko helburua eskualdeen eta toki-erakundeen sostengu eta lankidetzarekin lortu behar da.

Alde horretatik, aipatzekoa da Euskadiko 2018ko BEG emisioak Europar Batasuneko emisio guztien % 0,4 izan zirela eta isurle nagusiak sektore energetikoa, garraioa eta industria izan zirela, emisio guztien % 86rekin.

1990 eta 2018 bitartean, Euskadiko emisioak % 9 jaitsi ziren, eta BPGa % 91 igo zen; beraz, emisioen intentsitatea % 52 murriztu da. Industrietatik eratorritako emisioak % 53 jaitsi ziren eta sektore energetikoarenak % 8. Garraioaren emisioak, aldiz, % 130 igo ziren garai berean.

2005. urteari dagokionez, emisioak % 26 jaitsi ziren, eta BPGa % 17 igo zen; beraz, emisioen intentsitatea % 36 murriztu zen. Industrietatik eratorritako emisioak % 38 jaitsi ziren eta sektore energetikoarenak % 40. Garraioaren emisioak, aldiz, % 15 igo ziren garai berean.

Klima-aldaketari dagokionez Euskadiraiko prestatu diren bereizmen handiko eszenarioek iragartzen dutenez, muturreko tenperaturak 3°C igoko dira XXI. mendearen amaierarako, udako hilabeteetan.

Tenperatura eta prezipitazioei begira Euskadirentzat espero diren aldaketa nagusiak honako hauek dira:

**Temperaturen igoera orokortua:** aurreikusten da tenperaturak modu orokorrean igotzea; eszenario eta modeloaren arabera, igoera hori 1,5°C eta 5°C bitartean aldatzen da. Aurreikusten da igoera handiagoa izatea mendearen amaieran eta nabariagoa izatea barnealdean kostaldean baino. Tenperatura baxuko egunekin lotutako indizeek etorkizunean jaisteko joera izango lukete; tenperatura altuekin lotutakoek, aldiz, areagotzeko joera izango lukete.

**Prezipitazioen erregimenaren aldaketa:** aurreikusten da prezipitazio maila apur bat jaistea XXI. mendearen amaieran. Batez besteko aldaketa % 5etik beherakoa izango litzateke, azken garaian izan ezik, orduan % 10 eta % 15 bitartekoa izango bailitzateke, eszenarioaren



arabera. Aurreikusten da prezipitazio gutxiago egotea baina hauek gogorragoak izatea, eta horren ostean lehorre-aldi luzeak etortzea.

**Uraren tenperatuaren berokuntza eta itsas mailaren igoera:** XXI. mendearen amaierarako, itsasoren tenperatura 1,5°C eta 2,05°C bitarte igoko da euskal kostaldean, sakoneraren lehenengo 100 metroetan. Itsas mailaren igoerari dagokionez, zenbait azterlanek erakusten dute igoera hori gutxienez 0,45-0,5 metrokoa izango dela RCP 4.5ean eta 0,65-0,825 metrokoa RCP 8.5ean, Bizkaiko golkoan. Orokorrean, itsas mailaren batez besteko igoerak areagotuko du uholde-arriskua duen osoko eremua, eta baita uholdeen maiztasuna ere gaur egun uholde-arriskua duten eremuetan.

### 3.- Haren onarpenaren beharra eta egokitasuna

Arazo horiei erantzuteko beharrezkoa da esparru juridiko bat ezartzea, berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna 2050erako lortzeko eta lurraldeak klimaren aurrean duen erresilientzia handitzeko; horri begira, instituzioen arteko koordinazio-mekanismo eta –organoak sortu behar dira klima-aldaketaren alorrean.

Aukeraren ikuspuntutik, Euskadik badu abiapuntu hobezin bat trantsizio energetikotik eratorriko diren inpaktuak aprobetxatzeko, bai ingurumenaren alorrean eta bai alor sozial eta ekonomikoan, bere pisu espezifiko eta garrantziari esker. Izan ere, badu enpresa-ehun indartsua, zientzia eta teknologiako azpiegitura sendo batean sostengatua, euskal ekonomian pisu mardula duen sektore energetiko batekin; sektore hau, gainera, oso ondo dago kokatuta Estatuko gainerako erkidegoen aldean.

### 4.- Arauaren helburuak

Araua ondoren adierazitako helburuak lortzea ahalbidetuko duen arauzko esparru juridikoa ezarriko du.

- Klima-neutraltasuna beranduz jota 2050ean lortzea Euskadin, urte horretan ez dadin egon berotegi-efektuko emisio garbirik, horren bidez trantsizio energetikoaren arloko europar estrategia garatzen lagunduz.
- EAeko lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia handitzea.
- Deskarbonizazio-prozesua bultzatzea euskal sektore sozioekonomiko guztietan, jarduera ekonomikoa, enpresa-lehiakortasuna, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea hobetuz.
- Berotegi-efektuko gasen emisioen aldetik neutroa den ekonomiara zuzendutako bidezko trantsizioa bermatzea.
- Trantsizio energetikoaren prozesuaren aukerak aprobetxatzea teknologia eta enpresak garatzeko ahalmena bultzatzeko

**5.- Aukeran egon daitezkeen irtenbideak, bai arautzaileak eta bai ez-arautzaileak.**

Aurreko ataletan adierazitako zirkunstantziak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da arauzko izaera duen neurri espezifiko bat prestatzea, zeren ez baita bestelako aukera arautzaileak edo ez-arautzaileak ikusten.